

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Oporretan ere euskaraz zerbitzuaren tasa eguneratzea, oporretan ere euskaraz zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 19. eranskinaren 3. artikulua aplikatu behararengatik**

Alkatearen 2018ko maiatzaren 4ko 18/125 Dekretuaren bidez onartu zen % 1,10 igotzea Amurrioko oporretan ere euskaraz zerbitzua dela-eta egun ordaindu beharreko tarifa. Tarifa hori 2018an aplikatuko da.

- Amurrion erroldatutako eskola-umeen tasa: 55,58 euro.
- Amurrion erroldatutako eskola-umeen tasa, familia unitateko kide batek baino gehiagok programan izena eman duenean: 50,02 euro.
- Amurrion ez erroldatutako eskola-umeen tasa: 109,11 euro.
- Amurrion ez erroldatutako eskola-umeen tasa, familia unitateko kide batek baino gehiagok programan izena eman duenean: 105,60 euro.

Amurrio, 2018ko maiatzaren 4a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**